

**1999KO URTARRILAREN 20AN GOBERNU BATZORDEAK  
EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogei

**HILABETEA:** Urtarrila

**URTEA:** Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortziak eta hogeita hamar.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Lau (4)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Luis Elorza Mujika

Jose Ignacio Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1- AURREKO AKTA**

1998ko abenduaren 12ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

**2- OBRA ZIURTAGIRIAK**

Gernika pasealekuko birmoldaketari obrei buruzko hirugarren ziurtagiria.

Aldez aurretik Hirigintza-batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez onetsi da Gernika pasealekuko birmoldaketari obrei buruzko lehen ziurtagiria 9.088.432 pta.ko zenbatekoarekin.

**3.- OBRAK KONTRATATZEA**

Aldez aurretik Hirigintza-batzordearen aldeko txostena izanda, Arantzazu kaletik Juan XXIII kalera dihoazen eskailerak birmoldatzeko obrak kontratatzeke baldintza plegua onestea eta deialdia egitea proposatu da.

Bildutako partaideek inolako oztoporik azaldu ez dutenez, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

1- Arantzazu kaletik Juan XXIII kalera dihoazen eskailerak birmoldatzeko obrak kontratatzea, kontratazio-deialdia enkante bidez eginez.

2- Enkantea arautuko duten baldintza tekniko eta administratiboak onestea.

#### **4- OBRAK ADJUDIKATZEA**

Aldez aurretik hirigintza-batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez onetsi da Egunezko Zentroa egiteko obrak, TRATI S.L.ri adjudikatzea 13.392.285 pezetatan, BEZ barne, onartutako proiektu teknikoaren eta baldintza administratiboen arabera. Obrak bi hilabete eta erdi epean egingo dira, zuinketa-akta jasotzen denetik kontaktzen hasita.

#### **5.- LIZENTZIAK**

a- Oriako Pasealekuan 24 etxebizitza duen eraikina egikaritzeko lizentzia ematea.

Ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak egindako eskaera Besaingo Oriako Pasealekuan, 16an izaera sozialeko 24 etxebizitzako eraikina egiteko obra-baimena eskatuz eta egikaritze proiektua aztertu ondoren, aho batez baimena ematea erabaki da, egikaritze proiektua oinarrizko proiektuari doitzen zaiolako.

Hala ere, aldameneko eraikinarekin izan beharreko koordinazioa, oinezkoen zirkulazioa beheko oinean nahiz bi eraikinak izan behar duen altuera berdina, ebatzi gabe gelditzen delako, obrak hasten direnean, hau da zuinketa akta jasotzen denean, ezaugarri horiek Udal honekin tratatu beharko dira.

Aldi berean, 37 Hako Hirigintza Proiektuan jasotzen den "A" izeneko plaza urbanizatze beharra gogorarazi da, etxebizitzetara lehen okupaziorako baimena eman baino lehen.

b- 13 hirigintz Areak (13 HA) hainbat eraikin egiteko hirigintza lizentzia ematea.

Gai hau mahai gainean gelditu da, hirigintza batzordeko proposamenik ez dagoelako.

#### **6.- GORPUAK HOBITIK ATERATZEA**

Zerbitzu Batzordearen aldeko txostena izanda, 464tik 652 zenbakidun hobiraino dauden gorpuen desehorzketa egin ahal izateko prozedura hastea, aho batez erabaki da.

## **7- HITZARMENAK**

### **a- Loinatz Abesbatza elkarte**

Loinatz Abesbatza elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Kontzertua Aste Santuan	153.000 pezeta
- kontzertua Loinatz Jaietan	160.000 pezeta
- Kontzertua Gabonetan	160.000 pezeta
- Tolosako lehiaketako abesbatza	300.000 pezeta
- Gipuzkoa Ganbara abesbatza	150.000 pezeta
GUZTIRA.....	923.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan.

### **b- Argizpi argazkizale elkarte**

Argizpi argazkizale elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Argazki lehiaketa	255.000 pezeta
- Argazki rallya	100.000 pezeta
- Ikastaroa (50 ordu)	100.000 pezeta
- Argazki erakusketa	40.000 pezeta
- Argazkiak ateratzea	40.000 pezeta
GUZTIRA.....	535.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan. Aldi berean froga gisa Urbieta etxeko ateak larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan irekitzea onartu da.

### **c- Aurtzaka dantza taldea**

Aurtzaka dantza taldearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Haurrentzako VIII auresku lehiaketa	125.000 pezeta
---------------------------------------	----------------

- Nesken VIII. Doinu zahar lehiaketa	178.000 pezeta
- Dantzari txiki eguna	375.000 pezeta
- Udazken Kulturalako jaialdia	250.000 pezeta
GUZTIRA .....	928.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan.

#### d- Porteria auzo elkarteak

Porteria auzo elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- San Pedro Jaia	175.000 pezeta
- Herri abestiak	400.000 pezeta
GUZTIRA .....	575.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan.

#### e- Ostadar dantza taldea

Ostadar dantza taldearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Ihauteriak	170.000 pezeta
- Loinatz Jaiak	250.000 pezeta
- Zortzikoa (San Juan)	Megafonia eta Txistulariak
- Suelto txapelketa	280.000 pezeta
GUZTIRA .....	700.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 1999ko aurrekontua onartzearen baitan.

### **8- EUSKERA BATZORDEKO PROPOSAMENA**

Euskera batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“Euskara Batzordeak 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena oinarri hartuta, Gobernu Batzordeari ondorengo proposatzen dio:

## **Aldibaterako lanak egiteko lan-kontratuko langileak hartzerakoan ondoko irizpideak jarraitzea:**

- **E** mailako eskulangileak, taldeburu ez direnean, hizkuntza mailarik ez eskatzea.
- **E** mailako eskulangileen taldeburu eta **D** eta **C** mailako beste edozeini, gutxienez, 2. Hizkuntz Eskakizuna eskuratuta izatea eskatzea.
- **B** eta **A** mailako langileei, gutxienez, 3. Hizkuntz Eskakizuna edo baliokidea eskuratuta izatea eskatzea.

Noizbait hemen azaldutako irizpideak betetzen dituen langilerik aurkituko ez balitz edo irizpideak jarraitzeko beste arazoren bat egongo balitz, Euskara Batzordeari idatziz jakinarazi eta berarekin batera kasua aztertu eta kasuan kasuko erabakiak hartuko lirateke.”

## **9- INFORMAZIOA**

Idazkariak ezagutzera eman du, Beasaingo Udalean Euroa ezartzeko pausoak ematen ari direla, hau da, imprimakiak eta datu ekonomikoak dituen dokumentuak, ahal den neurrian behintzat datorren hiletik aurrera, pezetatan eta eurotan aterako dira eta diru-sarrerak ere bi dibisetan onartuko dira.

## **10- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

## **GURUTZE GORRIA**

Alkate jaunak zera gogorarazi du: Gurutze Gorriak, ikastaroak emateko egindako areto eskaria. Udalak, Urbialden duen aretoa uzteko aukera duela ezagutzera eman du. Lagapena, prekario moduan izango litzateke eta gehienera ere lau urtetarako eta ondoren deuseztatzen ez bada tazitoki luzatuko litzateke. Dena dela aretoa egokitze ardua beraiena izango litzateke eta horren ondorioz Gurutze Gorriak Udalari diru-laguntza eskatzen dio. Alkateak bidezkoa dela dio, izan ere, aretoa uzten duenean, bertan egindako egokitze-lanak Udalarentzat izango bait dira. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak ematea Udalbatzarreko gaia denez, aurrekontuetan aurreikusi beharko da.

## **GOIEKI**

Alkate jaunak ezagutzera eman du, egun hauetan GOIEKin ematen ari den eztabaida, Goierri mailan lur-industrialak kudeatzeari buruz.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.